La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A. se constituyó por Decreto del Gobierno Vasco 218/1982 de 8 de noviembre, siendo su objeto social inicial la promoción de una sociedad que gestionara los residuos industriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 32.2.b) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, la Sociedad cumple con los requisitos para ser considerada medio propio personificado respecto al Gobierno Vasco.

En 1990 la Junta General modifica el objeto social, eliminando el carácter de Sociedad Promotora para convertirla en una sociedad gestora de residuos industriales.

Sin embargo, en 1993 dada la constante evolución a la que está sometido el concepto de residuo, la Junta General de la Sociedad decide ampliar el objeto Social de Ihobe, S.A., pasando de ser una sociedad gestora de residuos industriales a ser una sociedad encaminada a la correcta gestión medioambiental.

El objeto social de Ihobe es el siguiente:

- Bajo las directrices del Departamento competente en materia de medio ambiente, contribuir al desarrollo de la política ambiental actual y futura y la extensión de la cultura de la sostenibilidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, principalmente en materia de cambio climático, biodiversidad, calidad del suelo y del aire, residuos, producción y consumo sostenible y medio ambiente urbano.

- Apoyar al Departamento competente en materia de medio ambiente en el diseño e implantación de las políticas ambientales, así como en las actuaciones en materia de gestión, control y recuperación ambiental.

- Generar y divulgar el conocimiento ambiental, así como fomentar la ecoinnovación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Administrazio publikoekin, enpresekin eta herritarrekin batera jardutea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren ingurumen-helburuak bultzatzen dituzten jarduerak egiteko.
- Ingurumenari buruzko eskumena duen Sailaren erakunde laguntzaile modura jardutea, Sail horrek emandako dirulaguntzak kudeatzeko orduan, betiere indarrean dagoen araudia erabat bete beharko delarik.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteari eta hobetzeari lotuta egon daitezkeen beste guztiak.

- Cooperar con las Administraciones Públicas, las empresas y la ciudadanía para la realización de actividades que impulsen los objetivos ambientales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Realizar actuaciones como entidad colaboradora del Departamento competente en materia de medio ambiente, para la gestión de las subvenciones que por dicho Departamento se otorguen, con pleno sometimiento a la normativa en vigor.
- Cualesquiera otras que tengan relacionadas con la protección y mejora del medio ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### 1.2 KAPITAL SOZIALA

Sozietatearen kapitala **bi milioi zortziehun eta berrogeita hiru mila seiehun eta hogeita bost euro eta hirurogei zentimo** da (2.843.626 €), eta kopuru hori ordezkatzeko, **berrehun eta laurogeita hamasei mila berrehun eta hamaika** akzio daude (296.211), bakoitza **bederatzi euro eta hirurogei zentimoko** (9,60€) balioa duena; klase bakarrekoak, batetik **berrehun eta laurogeita hamasei mila berrehun eta hamaika** (296.211) zenbakira arte zenbakituak, bi horiek barne direla, eta oso-osorik harpidetu eta emanak.

### 1.2 CAPITAL SOCIAL

El capital social se fija en **dos millones ochocientos cuarenta y tres mil seiscientos veinticinco euros y sesenta céntimos** de euro (2.843.626 €) representado por **doscientas noventa y seis mil doscientos once** (296.211) acciones de **nueve euros y sesenta céntimos de euro** (9,60 €) nominales cada una, de clase única, numeradas correlativamente de la uno a la **doscientas noventa y seis mil doscientos once** (296.211), ambos inclusive, íntegramente suscritas y desembolsadas.

### Administrazio Kontseilua

2025eko abenduaren 31n, administrazio-kontseilua honela dago osaturik:

Presidente: D. Mikel Jauregi Letemendia
Presidente ordea: D. Josu Bilbao Begoña
Batzordekiak:
Nicolas García-Borreguero Uribe jauna
Alberto José Fernández González jauna
Iñaki Alonso Arce jauna
Olga Martín García andrea
Idazkaria: Adriana Zabala Galarza andrea

### Consejo de Administración

El 31 de diciembre de 2025 la composición del Consejo de Administración es como sigue:

Presidente: D. Mikel Jauregi Letemendia
Vicepresidenta: D. Josu Bilbao Begoña
Vocales:
D. Nicolas García-Borreguero Uribe
D. Alberto José Fernández González
D. Iñaki Alonso Arce
Dña Olga Martín García
Secretaria: Dña. Adriana Zabala Galarza

## 2. 2025. URTEAN AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

### Trantsizio energetikoa eta klimatikoa. Politika energetiko-klimatikoaren ekintza

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legea hedatzea funtsezkoa da Euskadiko lurraldearen neutraltasun- eta erresilientzia-helburuak lortzeko. Administrazioan eta eragileen artean gobernantza-tresnak diseinatzea eta abian jartzea izan dira jarduketa-ardatz nagusiak. Tresna horien artean daude Bulegoa, Itun Soziala eta Herritarren Batzarra. Horrez gain, zeharkako tresnak landu dira, hala nola trantsizio

## 2. ACTIVIDADES REALIZADAS DURANTE 2025

### Transicion energética y climática. Acción de la política energético-climática

El despliegue de la Ley 1/2024 de transición energética y cambio climático es clave para conseguir los objetivos de neutralidad y resiliencia del territorio de Euskadi. El diseño y puesta en marcha de los instrumentos de gobernanza tanto en la administración como en los distintos agentes, como son la Oficina, el Pacto Social y la Asamblea ciudadana, ha sido los ejes centrales de actuación. Adicionalmente, se ha trabajado en

energetikoaren eta klimatikoaren ikuspegia duten aurrekontuak, bai eta plangintza integratu berria ere. Naturan oinarritutako soluzioak bultzatuta, alerta goiztiarreko sistemak hobetuta eta azpiegitura sentikorren erresilientzia hobetzeko lan eginda ekin zaio egokitzapen-ekintzari.

instrumentos transversales como los presupuestos con perspectiva de transición energética y climática, así como la nueva planificación integrada. La acción adaptativa se ha abordado a través del impulso de las Soluciones basadas en la naturaleza, la mejora de los sistemas de alerta temprana y el trabajo para mejorar la resiliencia en las infraestructuras sensibles.

KAIA instituzioarteko koordinazio-mahaia eratu da, klima-aldaketara egokitzeko proiektu erakusleen definizioan *aurrera egiteko* eta mahaia osatzen duten eragileen gobernantza finkatzeko.

Se ha configurado la mesa de coordinación interinstitucional KAIA *para avanzar* en la definición de los proyectos demostradores de adaptación al cambio climático y afianzar la gobernanza de los agentes que la componen.

Euskadiko Klimaren Egoerari buruzko lehen txostena egin da, bertako klima-aldaketari buruzko aurkikuntza nagusiak analizatzen dituena. Euskadiko klimatologiak zenbait klima-eremu (atlantikoa, mediterraneoa, trantsizioa) ditu ezaugarri, eta, beste aldagai batzuen artean, Bizkaiko golkoarekin itsas muga izateak eragiten dio.

Se ha elaborado el primer informe del Estado del Clima en Euskadi que analiza los principales hallazgos sobre el cambio climático en Euskadi, cuya climatología está caracterizada por varias zonas climáticas (atlántica, mediterránea, transición) y afectada, entre otras variables, por limitar litoralmente con el Golfo de Bizkaia.

EEErekin koordinatuta, 2024ko Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Plana ebaluatu da, eragile guztien artean Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako epe luzeko bide-orri berriaren eta 2030erako estrategiaren parte-hartzea diseinatu aurreko urrats gisa.

Se ha evaluado, en coordinación con el EVE, el Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2024 como paso previo al diseño participado entre todos los agentes de la nueva Hoja de ruta de Transición Energética y Cambio Climático a largo plazo y la estrategia a 2030.

Berotegi efektuko gasen emisioak kontabilizatu dira eta klima-aldaketak lurraldean dituen ondorioak monitorizatu dira, eragileentzako klima-zerbitzu gisa eskuragarri dagoen informazio guztia integratuta.

Se han contabilizado las emisiones de GEI y monitorizado los efectos del cambio climático en el territorio, integrando toda la información disponible en forma de servicios climáticos para los diferentes agentes.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legean jasotako tresnak diseinatu eta abian jarri dira, hala nola Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Itun Sozialean parte hartzeko prozesua edo Herritarren Batzarra, baita Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa ere.

Se han diseñado y puesto en marcha las herramientas incorporadas en la Ley 1/2024 de transición energética y cambio climático, como son el proceso de participación del Pacto Social por la Transición Energética y Cambio Climático o la Asamblea ciudadana, así como la Oficina vasca de Transición Energética y Cambio Climático.

Udalerriei eta eskualdeei babesa eman zaie Udalsarea 2030 sarearen esparruan klima- eta energia-planak egitea eta ezartzea bultzatzeko, eta udalerriek klimarako eta energiarako alkatetzen Europako Itunean parte hartzea sustatzeko.

Se ha dado apoyo a los municipios y comarcas para fomentar la elaboración e implantación de Planes de Clima y Energía en el marco de la red Udalsarea 2030 e incentivado la participación de los municipios en el Pacto europeo de alcaldías para el clima y la energía.

Euskadik klima-aldaketara egokitzeko Europako misioan parte hartzea dinamizatu da, eta klima-aldaketaren aurrean gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-sistemen esposizioa eta kalteberatasuna murrizten duten egokitzapen-neurri eraginkorrak diseinatu dira. Jarduketa horiek lurraldearen erresilientzia indartzen dute, eta sektore publikoaren zein pribatuaren inplikazioa sustatzen dute, bai eta euskal gizarte osoarena ere.

Se ha dinamizado la participación de Euskadi en la Misión europea de adaptación al cambio climático y se han diseñado medidas de adaptación eficaces que reducen la exposición y la vulnerabilidad de los sistemas sociales, económicos y ambientales frente al cambio climático. Estas actuaciones fortalecen la resiliencia del territorio y fomentan la implicación tanto del sector público como del privado, así

Lan horri esker, Euskadi eskualde aurreratu eta erakusletzat hartu da egokitzapenaren arloan.

como del conjunto de la sociedad vasca. Gracias a este trabajo, Euskadi ha sido considerada como región avanzada y demostradora en materia de adaptación.

Egokitzapen-neurriak eraman dira LIFE IP URBAN KLIMA 2050 edo Horizon Europa Regions4Climate proiektuen bidez, eta euskal eragileen parte-hartzea aktibatu da Euskadiko demostrazio-proiektuen proposamenetan.

Se han llevado medidas de adaptación a través de proyectos como el LIFE IP URBAN KLIMA 2050 o el Horizon Europa Regions4Climate, activando la participación de agentes vascos en las propuestas de proyectos demostración en Euskadi.

Dauden azpiegiturek muturreko gertaera meteorologikoen aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua analizatzeko aukera ematen duen tresna bat garatu da, klima-aldaketara egokitzeko jarduketen plangintza eta gauzatzea bultzatzeko. Era berean, klimaren aldagaia txertatu da Itsasertzeko LPSan, lurralde-plangintzan egokitzeko irizpideak integratuta.

Se ha desarrollado una herramienta que permite analizar la vulnerabilidad y el riesgo de las infraestructuras existentes frente a eventos meteorológicos extremos, impulsando así la planificación y ejecución de actuaciones de adaptación al cambio climático. Asimismo, se ha incorporado la variable climática en el PTS de Litoral, integrando criterios de adaptación en su planificación territorial.

Klima-aldaketaren aurreko egokitzapenari eta erresilientziari buruzko ezagutza aurreratua sortzeko eta transferitzeko 5 Klimatek proiektu kudeatu dira.

Se han gestionado 5 proyectos Klimatek para la generación y transferencia del conocimiento avanzado en materia de adaptación y resiliencia ante el cambio climático.

138 jarduera baino gehiago egin dira 45 udalerritan, hiru lurralde historikoetan banatuta, eta 2.700 parte-hartzaile baino gehiago izan dira 2025eko Asteklima - Euskadiko Klima eta Energia Astearen esparruan.

Se han desarrollado más de 138 actividades en 45 municipios, repartidas por los tres Territorios históricos, con más de 2.700 participantes en el marco de Asteklima, Semana de Clima y Energía de Euskadi 2025.

## Ekonomia zirkularra. Euskal enpresaren trantsizioa ekonomia zirkularrerantz

## Economía circular. Transición de la empresa vasca hacia la economía circular

2025ean, Euskadiko eragile sozioekonomikoekin ekonomia zirkularra sustatzeko lanean jarraitu da lankidetza publiko-pribatuko ekimenen bidez, hala nola: Basque Ecodesign Center eta Euskadi ETE Zirkularra.

A lo largo de 2025 se ha continuado el trabajo con los diferentes agentes socioeconómicos de Euskadi en la promoción de la economía circular. Ello a través de las iniciativas de colaboración público-privadas, como son el Basque Ecodesign Center y Pyme Circular Euskadi.

Eragile horiekin guztiekin, apirilaren 2tik 4ra bitartean Basque Circular Summit 2025 egin da. Bertan, eta 700 enpresa baino gehiago eta 25 herrialde baino gehiagotako 1.300 pertsona izan dira. Kongresua WCEF World Circular Economy Forumaren ekitaldi ofizial gisa sartu da. WCEF ekonomia zirkularreko foro global garrantzitsuena da, eta Sitra Finlandiako Berrikuntza Funtsa du buru. Edizio honetako berrikuntza gisa, kongresua elkarri lotutako 3 espaziotan egituratu da, ekonomia zirkularraren arloan Euskadi erreferentziazko eskualde gisa nazioartean proiektatzeko helburuarekin: FORUM (ekonomia zirkularrak euskal ETEentzat dituen erronkak aztertu zituzten 22 saio tematikorekin), VILLAGE (ekonomia zirkularraren ekosistema osatzen duten eragileen gaitasunak partekatzeko espazioa) eta EXPO (ekonomia zirkularreko estrategiak integratzen dituzten 150 soluzio zirkular baino gehiagoren erakusketa).

Con todos estos agentes, entre el 2 y el 4 de abril se ha celebrado el Basque Circular Summit 2025, que ha contado con más de 700 empresas y 1.300 personas asistentes de más de 25 países. El congreso ha sido incluido como evento oficial del World Circular Economy Forum (WCEF), el foro global más importante en economía circular, liderado por el Fondo de Innovación de Finlandia, Sitra. Como novedad de esta edición, el congreso se ha estructurado en 3 espacios conexos con el objetivo de dar proyección internacional a Euskadi como región referente en materia de economía circular: FORUM, con 22 sesiones temáticas que analizaron los retos de la economía circular para las Pymes vascas; VILLAGE, espacio donde compartir las capacidades de los agentes que conforman el ecosistema de la economía circular; y EXPO, exposición de más de 150 soluciones circulares que integran estrategias de economía circular.

Hezkuntza-arloarekin lankidetzan, 2025eko otsailean "Basque Circular Hub"en egoitza berri bat jarri da abian Arrasaten, Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan, HIREKIN proiektuaren esparruan (industria-eraldaketa jasangarri baterako berrikuntza- eta ekintzailetza-zentroa). Era berean, TKNIKArekin batera, ekonomia zirkularreko autoprestakuntza-modulu bat garatu da irakasleentzat, eta, horri esker, "Jasangarritasuna" irakasgaiko 1.800 irakasle prestatu ahal izan dira. Irakasgai hori nahitaezkoz da Lanbide Heziketako ziklo guztietan.

En el ámbito de colaboración con el ámbito educativo, en febrero de 2025se ha puesto en marcha una nueva sede del "Basque Circular Hub" en Arrasate-Mondragón, en colaboración con Mondragon Unibertsitatea en el marco del proyecto HIREKIN, Centro de innovación y emprendimiento para una transformación industrial sostenible. Asimismo, se ha desarrollado conjuntamente con TKNIKA un módulo autoformativo en economía circular para profesorado, que ha permitido formar a 1.800 profesores/as de la asignatura de "Sostenibilidad", obligatoria en todos los ciclos de formación profesional.

Jardunean dauden profesionalen prestakuntzari dagokionez, 2025ean Programaren bigarren edizioa egin da, Confebaskekin, bere lurralde-organizazioekin eta Euskadiko ETE Zirkularreko bitarteko hainbat eragilerekin lankidetzan. Programak 29 ikastaro barne hartzen ditu, eta horiek 60 saiotan zabaldu dira hiru lurralde historikoetan. Ikastaro horiek hainbat esparru biltzen dituzte, hala nola deskarbonizazioa bizi-zikloaren ikuspegiarekin, trantsizio-arriskuak, finantza jasangarriak eta gardentasuna.

En cuanto a la formación de profesionales en activo, en 2025 ha tenido lugar la segunda edición del Programa, en colaboración con Confebask, sus organizaciones territoriales y con varios agentes intermedios de Pyme Circular Euskadi. El programa incluye 29 cursos diferentes, que se han desplegado en 60 sesiones por los tres territorios históricos. Estos cursos cubren ámbitos como la descarbonización con enfoque de ciclo de vida, riesgos de transición, finanzas sostenibles y transparencia.

Abian jarritako ekimen berrien ikuspegitik, azaroan BasquESG ekimena aurkeztu da, jasangarritasuna ebaluatzeko ESG sistema bat abian jartzeko, 2030erako Euskadiko Industria Planaren Proiektu Eraldatzaile gisa. Seihileko horretan, lana eragile traktoreen inplikazioan zentratu da: sektore estrategikoetako industria-enpresa handiak (sektore horien artean daude energia, erregai berriztagarriak, aeroespaziala, sare adimendunak eta biltegiratzea, mugikortasun jasangarria, automobilgintzako osagaiak eta metalurgia), finantza-sektorea eta ETEak dinamizatzeko eragileak. Basque Zirkular Metals ekimenaren diseinua ere hasi da, eskualde-mailan ekonomia zirkularraren inplementazioa bizkortzeko, Euskadin metalaren zirkulartasuna bultzatzeko, kanpo-mendekotasuna murrizteko eta material kritikoen, altzairuaren eta aluminioaren autosufizientzia bizkortzeko.

Desde el punto de vista de las nuevas iniciativas puestas en marcha, en noviembre se ha presentado la iniciativa BasquESG para la puesta en marcha de un sistema de evaluación de la sostenibilidad ESG, enmarcada como Proyecto Transformador en el Plan de Industria de Euskadi 2030. Durante este semestre, el trabajo se ha focalizado en la involucración de los agentes tractores: grandes empresas industriales de sectores estratégicos como la energía, los combustibles renovables, aeroespacial, redes inteligentes y almacenamiento, movilidad sostenible, componentes de automoción, y metalurgia; el sector financiero; y los agentes dinamizadores de Pymes. También se ha comenzado el diseño de la iniciativa Basque Zirkular Metals, con el objetivo de acelerar la implementación de la economía circular a nivel regional, impulsar la circularidad del metal en Euskadi, reducir la dependencia exterior y acelerar la autosuficiencia de los materiales críticos, el acero y el aluminio.

Azkenik, Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzaren ekitaldi jasangarrien zigiluaren bidez, 2025ean egindako guztira 93 ekitaldiri eman zaie zerbitzua.

Por último, a través de Erronka Garbia, sello de eventos sostenibles de Gobierno Vasco, se ha dado servicio a un total de 93 eventos celebrados durante 2025.

**Ingurumenaren babesa**

**Protección del Medio Ambiente.**

Ingurumen-politika aurreratu eta berritzaile bat bultzatzea:

Impulso de una política ambiental avanzada e innovadora:

Euskadin ingurumen-politikaren lanketa, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa sistematikoki egituratu da esparru guztietan, haren efizientzia eta efikazia indartzeko. Ikuspegi horrek aukera ematen du erabaki informatuagoak hartzeko, inplikatutako eragileen parte-hartzea sustatzen du eta administrazioen arteko koordinazioa indartzen du. Horrela, ikuspegi global eta kolaboratiboko ingurumen-kudeaketa errazten da.

La elaboración, implantación, seguimiento y evaluación de la política ambiental en Euskadi se ha estructurado de manera sistemática en todos los ámbitos, con el objetivo de potenciar su eficiencia y eficacia. Este enfoque permite tomar decisiones más informadas, fomenta la participación de los diferentes agentes implicados y refuerza la coordinación entre las distintas administraciones. De este modo, se facilita una gestión ambiental con perspectiva global y colaborativa.

Era berean, aurrera egin da kontratu publikoetan ingurumen-jasangarritasuna eraginkortasunez integratzeko, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030 Programan ezarritako helburuak bultzatuta, lehen ekintza-planean zehaztutako jarduketen bidez. Jarduketak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari zuzendu zaizkio, baina eredu dira gainerako administrazio publikoentzat eta sektore pribatuarentzat ere. Horrekin, garapen sozioekonomiko jasangarria bultzatzen da, ingurumenaren babesa eta enpresen lehiakortasuna uztartuta. Hori guztia Europako Batzordeak sustatutako ikuspegi estrategikoaren arabera egin da, kontratazio publikoak merkatuan eragiteko eta aldaketaren motor izateko duen ahalmena aitortzen baitu.

Se ha avanzado también en la integración efectiva de la sostenibilidad ambiental en los contratos públicos, impulsando los objetivos establecidos en el Programa de Compra y Contratación Verde de Euskadi 2030 a través de las actuaciones definidas en el primer plan de acción. Las actuaciones se han dirigido principalmente a la Administración General del País Vasco, pero sirven de ejemplo para el resto de las administraciones públicas, así como para el sector privado. Con ello, se favorece el desarrollo socioeconómico sostenible conjugando la protección del medio ambiente y la competitividad empresarial. Todo ello se ha realizado conforme a la visión estratégica promovida por la Comisión Europea que reconoce la capacidad de la contratación pública para influir en el mercado y ser motor de cambio.

Aurrera egin da V. Ingurumen Esparru Programa gauzatzean, haren 8 proiektu eraldatzaileak egin baitira. Horiek, batez ere, proiektuei zuzenean laguntzen dieten beste arlo batzuetan dagoeneko aurreikusitako jarduketen bidez egiten dute aurrera, ekimen gehigarri espezifikorik garatu beharrik gabe, baizik eta jardueretan ingurumen-babesa integratzen duen ikuspegi bat txertatuta.

Se ha avanzado en la ejecución del V Programa Marco Ambiental materializado en la ejecución de sus 8 proyectos transformadores. Estos progresan principalmente a través de actuaciones ya previstas en otras áreas que contribuyen directamente a los proyectos sin necesidad de desarrollar iniciativas adicionales específicas, sino incorporando en las actividades una perspectiva que integre la protección ambiental.

Osasun Sailarekiko lankidetzari eutsi zaio airearen kalitatearekin eta klima-aldaketarekin lotutako erronkei elkarrekin heltzeko, bi ingurumen-bektoreek herritarren osasunean duten inpaktu handia dela eta.

Se ha mantenido la colaboración con el Departamento de Salud para abordar de manera conjunta los desafíos relacionados con la calidad del aire y el cambio climático, dado el elevado impacto que ambos vectores ambientales tienen sobre la salud de la ciudadanía.

Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erabilera sistematizatu eta sinplifikatu da, bai eta hura berritzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko bere sistema ere, tresna horren erabilera bultzatzeko, batez ere euskal ETEen artean. Hori guztia Zerga Koordinaziorako Organoarekin koordinatuta egin da.

Se ha sistematizado y simplificado el uso del Listado Vasco de tecnologías Limpias, así como su sistema de renovación, evaluación y control, de forma que se impulse el uso de este instrumento, principalmente entre las Pymes vascas. Todo ello se ha hecho en coordinación con el Órgano de Coordinación Tributaria.

Aurrera egin da bai eskaintzaren, bai eskariaren ikuspegitik finantza jasangarriak garatzen lagundu dezaketen tresnen ezagutzan eta garapenean. Esparru hori Eusko Jaurlaritzaren zerga- eta finantza-politikarekin koordinatu behar da, ingurumen-berrikuntzan lagunduz eta Europako taxonomia berdearekin bat etorriz.

Se ha avanzado en conocimiento y desarrollo de instrumentos que puedan contribuir al desarrollo de las finanzas sostenibles tanto desde la perspectiva de la oferta como de la demanda. Este ámbito debe coordinarse con la política fiscal y financiera de Gobierno Vasco contribuyendo a la

Lurzorua babestea eta lurzoru kutsatuak berreskuratzea:

Ihobek, 2030eko Lurzorua Babesteko Estrategiaren idazkaritza tekniko gisa, 2025ean haren jarraipena bultzatu du bere lehen hiru gauzatze-urteetan, bai eta 2026-2027 Ekintza Plan berri bat formulatzeko lanak sustatu ere. Estrategiaren jarraipen-batzordea osatzen duten erakunde eta eragileekin erabat koordinatuta egin da hori guztia. Hona ekintza horietako batzuk:

Zeharkako lan-ildoak dinamizatzea, ezagutza sortzeko, gobernantza hobetzeko eta lurzoruaren babesaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko.

Ihoberen, SPRILURen eta URAren arteko lankidetza indartzea, jarduera ekonomiko berrietarako lehentasunezko lurzoru kutsatuak (hala nola Etxe-Uli, Burtzeña, Fundifest eta Playabarri-Sakoni) berreskuratzeko eta berrerabiltzeko jarduketekin, indusketaren eta isurketaren ordezko erremediatze-teknologien erabilera sustatuta.

Garbiland proiektua (erosketa berritzailekoa) bultzatzea, lurzoru kutsatuetan in situ edo on-site teknologien garapena sustatzeko.

Ingurumen-azpiegiturak berreskuratzen eta kudeatzen laguntzea. Argalario eta Loiuko deposituetako ingurumena zaintzeko eta hobetzeko lanei jarraipena emateaz gain, beste lurzoru batzuk berreskuratzeko laguntza eman da.

Dibulgazioa eta herritarren ingurumen-inplikazioa:

Herritarrak ingurumen-hezkuntzan inplikatzea funtsezkoa da trantsizio ekologiko erreala eta iraunkorra bultzatzeko. Herritarren parte-hartzeak, ingurunea babesteko jarrera positiboak sortzeaz gain, jardunbide jasangarriak sustatzen ditu, pentsamendu kritikoa indartzen du eta komunitateak ahalduntzen ditu ingurumen-erabakiak hartzen. Ingurumen-hezkuntzak —formalak zein informalak— herritarrei tresnak ematen dizkie egungo erronkak ulertzeko, arduraz jokatzeko eta arazoak konpontzen aktiboki parte hartzeko.

innovación ambiental y en línea con la taxonomía verde europea.

Protección del suelo y recuperación suelos contaminados:

Ihobe como secretaría técnica de la Estrategia de protección del suelo 2030, ha impulsado durante el 2025 el seguimiento de esta durante sus tres primeros años de ejecución; así como el impulso a los trabajos de formulación de un nuevo Plan de Acción 2026-2027. Todo ello en plena coordinación con las distintas instituciones y agentes que componen la comisión de seguimiento de la Estrategia. Algunas de estas acciones han sido:

La dinamización de líneas de trabajo transversales orientadas a generar conocimiento, mejorar la gobernanza y fomentar la formación y sensibilización en materia de protección del suelo.

El refuerzo de la colaboración entre Ihobe, SPRILUR y URA, con actuaciones de recuperación y reutilización de suelos contaminados prioritarios para nuevas actividades económicas, como son Etxe-Uli, Burtzeña, Fundifest y Playabarri-Sakoni, fomentando la utilización de tecnologías de remediación alternativas a la excavación y el vertido.

Impulso del proyecto Garbiland (de compra innovadora) para fomentar el desarrollo de tecnologías in-situ u on-site en suelos contaminados.

Apoyo en la recuperación y gestión de infraestructuras ambientales. Además de dar continuidad a los trabajos de mejora y vigilancia ambiental de los depósitos de Argalario y Loiu se ha dado apoyo en la recuperación de otros suelos.

Divulgación e implicación ambiental de la ciudadanía:

La implicación de la ciudadanía en la educación ambiental es esencial para impulsar una transición ecológica real y duradera. La participación ciudadana no solo genera actitudes positivas hacia la protección del entorno, sino que también promueve prácticas sostenibles, fortalece el pensamiento crítico y empodera a las comunidades en la toma de decisiones ambientales. La educación ambiental —tanto formal como informal— proporciona a la población herramientas para comprender los desafíos actuales, actuar de forma responsable y participar activamente en la resolución de problemas.

Ikuspegi integral horrek ezagutza, balioak eta ekintza uztartzen ditu, eta funtsezkoa da gizarte bidezkoagoak eta erresilienteagoak eraikitzeko. Hain zuzen, ikuspegi horretan oinarritzen da Ekoetxea Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarearen jarduera guztia. Ekoetxea sareak leku enblematikoetan kokatutako bost zentro propio ditu, hiru modu integralean kudeatuak (Urdaibai, Meatzaldea eta Txingudi) eta bi lankidetzan kudeatuak (Azpeitia eta Sobron). Ekoetxea Sarearen jarduera osatu egiten da ingurumen-hezkuntzako beste zentro eta erakunde batzuekin lankidetzan garatutako esperientziekin. Horiek guztiak erreferente bat dira herritarrentzat, tokiko gizarte-kohesioa eta ingurumen-sentsibilitatea sustatzen baitituzte beren idiosinkrasia eta ezaugarrietatik abiatuta.

Este enfoque integral, que combina conocimiento, valores y acción, es clave para construir sociedades más justas y resilientes, y es sobre el que se basa toda la actividad de la Red de Centros Ambientales de Euskadi, Ekoetxea. La red Ekoetxea cuenta con cinco centros propios localizados en lugares emblemáticos, gestionados de manera integral (Urdaibai, Meatzaldea y Txingudi) y dos en colaboración (Azpeitia y Sobrón). La actividad de la Red Ekoetxea se complementa con experiencias desarrolladas en colaboración con otros centros y entidades de educación ambiental. Todos ellos constituyen un referente para la ciudadanía ya que fomentan la cohesión social local y la sensibilidad ambiental partiendo de su propia idiosincrasia y características.

Herritarrekiko lanaren esparruan, egindako ingurumen-jarduera komunikatzen eta ikusarazten jarraitu da. Horrela, lortutako aurrerapenak herritarrei helarazten eta haietan horiek inplikatzen jarraitu da.

En el marco de trabajo con la ciudadanía se ha continuado con la comunicación y visibilización de la actividad medioambiental realizada, trasladando e involucrando así a la ciudadanía en los avances conseguidos.

Asteklima, Klima Azoka, Hondakinen Prebentziorako Europako Astea eta Let's Clean Up Euskadi bezalako kanpainetatik abiatuta, Ekoetxea sarea osatzen duten zentroek bultzatutako esperientzia guztiez gain, aurrerapen esanguratsua lortu da herritarren sentsibilizazioan eta konpromisoan, parte-hartze behatzaile hutsetik ingurumen-ekintzan rol aktibo eta protagonistara igarotzea bultzatuta.

Desde las distintas acciones como Asteklima, Klima azoka, la Semana Europea de Prevención de Residuos y campañas como Let's Clean Up Euskadi, además de todas las experiencias impulsadas desde los centros integrantes de la red Ekoetxea se ha logrado un avance significativo en la sensibilización y el compromiso de la ciudadanía, propiciando el tránsito de una participación meramente observadora a un rol activo y protagonista en la acción ambiental.

Ekoetxea sareak lanean jarraitzen du konpromiso honekin: bisitak bihurtzea denboran zehar eutsitako ohitura-eraldaketa ekarriko duten ekintza zehatz.

La red Ekoetxea sigue trabajando con el compromiso de transformar las visitas en acciones concretas que supongan una transformación de hábitos sostenida en el tiempo.

2024ko Euskadiko Ingurumen Koiunturaren lehen txostena egin eta argitaratu da. Txosten horrek egungo egoera eta bilakaera jasotzen ditu. Herritarrek ingurumen-hezkuntzan duten inplikazioa funtsezkoa da trantsizio ekologiko erreala eta iraunkorra bultzatzeko. Herritarren parte-hartzeak, ingurunea babesteko jarrera positiboak sortzeaz gain, jardunbide jasangarriak sustatzen ditu, pentsamendu kritikoa indartzen du eta komunitateak ahalduntzen ditu ingurumen-erabakiak hartzen. Ingurumen-hezkuntzak —formalak zein informalak— herritarrei tresnak ematen dizkie egungo erronkak ulertzeko, arduraz jokatzeko eta arazoak konpontzen aktiboki parte hartzeko.

Se ha elaborado y publicado el primer Informe de Coyuntura Ambiental de Euskadi 2024 que recoge el estado actual y la evolución de los princ La implicación de la ciudadanía en la educación ambiental es esencial para impulsar una transición ecológica real y duradera. La participación ciudadana no solo genera actitudes positivas hacia la protección del entorno, sino que también promueve prácticas sostenibles, fortalece el pensamiento crítico y empodera a las comunidades en la toma de decisiones ambientales. La educación ambiental —tanto formal como informal— proporciona a la población herramientas para comprender los desafíos actuales, actuar de forma responsable y participar activamente en la resolución de problemas.

Ikuspegi integral horrek ezagutza, balioak eta ekintza uztartzen ditu, eta funtsezkoa da gizarte bidezkoagoak eta erresilienteagoak eraikitzeko. Hain zuzen, ikuspegi horretan oinarritzen da Ekoetxea Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarearen jarduera guztia. Ekoetxea sareak leku enblematikoetan kokatutako bost zentro propio ditu, hiru modu integralean kudeatuak (Urdaibai, Meatzaldea eta Txingudi) eta bi lankidetzan kudeatuak (Azpeitia eta Sobron). Ekoetxea Sarearen jarduera osatu egiten da ingurumen-hezkuntzako beste zentro eta erakunde batzuekin lankidetzan garatutako esperientziekin. Horiek guztiak erreferente bat dira herritarrentzat, tokiko gizarte-kohesioa eta ingurumen-sentsibilitatea sustatzen baitituzte beren idiosinkrasia eta ezaugarrietatik abiatuta.

Herritarrekiko lanaren esparruan, egindako ingurumen-jarduera komunikatzen eta ikusarazten jarraitu da. Horrela, lortutako aurrerapenak herritarrei helarazten eta haietan horiek inplikatzen jarraitu da.

Asteklima, Klima Azoka, Hondakinen Prebentziorako Europako Astea eta Let's Clean Up Euskadi bezalako kanpainetatik abiatuta, Ekoetxea sarea osatzen duten zentroek bultzatutako esperientzia guztiez gain, aurrerapen esanguratsua lortu da herritarren sentsibilizazioan eta konpromisoan, parte-hartze behatzaile hutsetik ingurumen-ekintzan rol aktibo eta protagonistara igarotzea bultzatuta.

Ekoetxea sareak lanean jarraitzen du konpromiso honekin: bisitak bihurtzea denboran zehar eutsitako ohitura-eraldaketa ekarriko duten ekintza zehatz.

2024ko Euskadiko Ingurumen Koiunturaren lehen txostena egin eta argitaratu da. Txosten horrek bederatzi ingurumen-bektoreren adierazle nagusien egungo egoera eta bilakaera jasotzen du, herritarrei ingurumen-errealitatearen berri emateko.

## 3. BALIABIDEAK

Ihobe SAren jardueraren finantza-euskarria, 2025eko ekitaldian, aurrekontuetan kontsignatutako Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak izan dira, eta, neurri txikiagoan, Spri Taldearekiko akordioa, Europako laguntzak, Basque Ecodesign Center sarearen eta Udalsarearen kuotak eta Ekoetxea Sarerako sarrerak.

Este enfoque integral, que combina conocimiento, valores y acción, es clave para construir sociedades más justas y resilientes, y es sobre el que se basa toda la actividad de la Red de Centros Ambientales de Euskadi, Ekoetxea. La red Ekoetxea cuenta con cinco centros propios localizados en lugares emblemáticos, gestionados de manera integral (Urdaibai, Meatzaldea y Txingudi) y dos en colaboración (Azpeitia y Sobrón). La actividad de la Red Ekoetxea se complementa con experiencias desarrolladas en colaboración con otros centros y entidades de educación ambiental. Todos ellos constituyen un referente para la ciudadanía ya que fomentan la cohesión social local y la sensibilidad ambiental partiendo de su propia idiosincrasia y características.

En el marco de trabajo con la ciudadanía se ha continuado con la comunicación y visibilización de la actividad medioambiental realizada, trasladando e involucrando así a la ciudadanía en los avances conseguidos.

Desde las distintas acciones como Asteklima, Klima azoka, la Semana Europea de Prevención de Residuos y campañas como Let's Clean Up Euskadi, además de todas las experiencias impulsadas desde los centros integrantes de la red Ekoetxea se ha logrado un avance significativo en la sensibilización y el compromiso de la ciudadanía, propiciando el tránsito de una participación meramente observadora a un rol activo y protagonista en la acción ambiental.

La red Ekoetxea sigue trabajando con el compromiso de transformar las visitas en acciones concretas que supongan una transformación de hábitos sostenida en el tiempo.

Se he elaborado y publicado el primer Informe de Coyuntura Ambiental de Euskadi 2024 que recoge el estado actual y la evolución de los principales indicadores de nueve vectores ambientales para informar a la ciudadanía de la realidad ambiental.ipales indicadores de nueve vectores ambientales para informar a la ciudadanía de la realidad ambiental.

## 3. RECURSOS

El soporte financiero de la actividad de Ihobe, S.A. durante el ejercicio 2025 han sido las aportaciones del Gobierno Vasco consignadas en los presupuestos y, en menor medida, el Acuerdo con el Grupo Spri, las ayudas europeas, las cuotas de la red Basque Ecodesign Center y Udalsarea y las entradas a la Red Ekoetxea.

## 4. NEGOZIOEN BILAKAERA ETA SOZIETATEAREN EGOERA

2025an, aurreko urtekoaren parekoak izan dira diru-sarrerak eta negozio-bilakaera: aurrekontuaren % 100 betearazi da, eta helburuak —oro har— lortu egin dira.

## 4. EVOLUCIÓN DE LOS NEGOCIOS Y SITUACIÓN DE LA SOCIEDAD

La evolución del negocio durante el 2025 presenta unos ingresos similares respecto al año anterior habiéndose ejecutado un 100% del presupuesto y logrado los objetivos, de forma general.

## 5. ARRISKU ETA ZIURGABETASUN NAGUSIAK

Finantza-arrisku nagusiak eta horien kudeaketarako prozedurak, dokumentu honekin batera doan memoriako 9. oharrean banakatzen dira (Finantza-tresnen arriskuaren izaerari eta mailari buruzko informazioa).

## 5. PRINCIPALES RIESGOS E INCERTIDUMBRES

Los principales riesgos financieros y los procedimientos para su gestión se desglosan en la nota 9 de la memoria adjunta (Información sobre la naturaleza y nivel de riesgo de los instrumentos financieros).

## 6. NORBERE AKZIOAK EROSTEA

Aipagai dugun ekitaldian, sozietateak ez du akzio propiorik erosi eta ez du halakorik ekitaldiaren amaieran.

## 6. ADQUISICIÓN DE ACCIONES PROPIAS

Durante el ejercicio la Sociedad no ha adquirido acciones propias ni posee a fin de ejercicio.

## 7. IKERKETA ETA GARAPENAREN ARLOAN BURUTUTAKO JARDUERAK

Ekitaldian zehar, ez da lanik burutu Ikerketa eta Garapenaren arloan.

## 7. ACTIVIDADES REALIZADAS EN MATERIA DE INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO

Durante el ejercicio no se han llevado a cabo labores de Investigación y Desarrollo.

Ihobe, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko administratzaileak bildu dira 2026ko martxoaren 26an, eta, Euskadiko aurrenkontu-araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenetako testu bateginaren 124. Artikuluan ezarritako baldintzak betez (2011ko maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina).

Sinatzaileak:

Reunidos los Administradores de la Socieda Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A., con fecha 26 de marzo de 2026 y en cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 124 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado mediante Decreto Legislativo 1/2011 de 24 de mayo.

Firmantes:

D. Mikel Jauregi Letemendia
Presidentea / Presidente
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila/ Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

D. Josu Bilbao Begoña
Presidenteordea/Vicepresidente
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila/ Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

D. Nicolás García-Borreguero Uribe
Kidea/Vocal
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila/ Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

D. Iñaki Alonso Arce
Kidea/Vocal
Ogasun eta Finantza Saila/Departamento de Hacienda y Finanzas

Dña. Olga Martín García
Kidea/Vocal
Aclima
Basque Environment Cluster

D. Alberto José Fernández González
Kidea/Vocal
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila/ Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad

Dña. Adriana Zabala Galarza
Idazkaria, ez da kontseilaria / Secretaria, no es Consejera